

BALOREZKO PROPOSAMENA

Lehenengo atal honetan gure produktuak eskaintzen dituen onurak, ezaugarriak, berezitasunak, etab. zehaztasunez azalduko ditugu, gure produktua sakonago ezagutu dezazuen.



Aspalditik ezagutzen ditugu kabledun aurikularrak, eta geroz eta gehiago erabiltzen ditugu. Horrez gain, azkeneko urteetan hain ezagunak bihurtu diren kable gabeko aurikularrek garrantzi handia hartu dute musika-entzuleen artean. Denok dakigun bezala, sarritan korapiloak sortzen dira kabledun aurikularretan, beraien erabilera azkarra izateko aukera murriztuz. Kable-gabeko aurikularrak berriz, azkar agortzen den bateria eta denok ordaindu ezin dezakegun prezioa dute. Arazo hauei aurre egiteko gure produktua sortu dugu.

Kablea duten aurikularrak gordetzeko kaxa bat diseinatu dugu: **AUKA** izendatu dugu eta hau da diseinatu dugun logoa, orri-oin guztietan aurki dezakezuen.

A U K A

Kaxa honek, botoi bati sakatuz jasotzen ditu aurikularrak, kablean korapiloak saihestuz eta metodo azkarra eskainiz poltsikoan gordetzerakoan. Berria dela esan dezakegu, izan ere, merkatuan antzerako produktuak bilatu ditugun arren, ez dute funtzio hau automatikoki egiten. Milioika kaxa aurkitu ditzakegu aurikularrak gordetzeko, baina hauetan kableak eskuz sartu behar dira. Honek hainbat arazo sor ditzake: kablea gaizki sartzea eta korapilatzea, sartzeko garian denbora ez edukitzeagatik alferkeria sortzea eta ez egitea... beraz, gure produktua erabiliz, prozesu hau azkarragoa eta errazagoa bihurtuko litzateke. Aurikularrak beti kaxarekin batera salduko dira.




A U K A

Aurikular kaxa txiki hauek diseinu batean (biribil forman) egongo dira eskuragarri , 4 kolore ezberdinetan (beltza, zuria, gorria eta urdina) eskainiko ditugu. Hala ere, ezingo da pertsonalizatu, hau da, webgunean eta dendan aurkitzen diren produktuak aldaezinak izango dira. Bestalde, mugikor bakoitzak *larako desberdina behar duenez, bakoitzera moldatuko den aurikular modelo desberdinak ere egongo dira. Gainera, kaxek tamaina txikia edukiko dutenez, poltsikotan ez dute molestaturiko eta edonora eramateko prest egongo dira.

Produktuaren diseinuari dagokionez, esan bezala dimentsio txikikoa izango da, hau da, kaxa biribilaren diametroa 5cm-koa izango da eta bertatik aurikularraren larakoa eta belarrian doazen bozgoragailu txikiak aterako dira. Poltsikoan eraman ahal izateko, 2cm neurtuko du gehienez altuerak, hau da, zapala izango da. Kaxaren barruan berriz, mekanismo berezi bat edukiko du, botoi baten bidez, aurikularren kablea erdiko piezaren inguruan bueltaka gordetzen hasiko da, eta bozgoragailutxoak bereizten dituen kableak, bakoitza bere aldetik jasoko dira ere. Horretarako dena lotuta egongo da, eta egin behar den gauza bakarra botoi hori sakatzea da. Materialari dagokionez, kaxa plastiko gogorrezkoa izango da, eta barruko materiala ere. Azkenik, aurikularrak edozein kabledun aurikularren neurrikoak izango dira eta esan bezala, larako desberdinak edukiko dituzte.

Gure produktuaren abantaila oso eroso bat prezioa da, merkatuan aurki ditzakegun beste aurikularrekin konparatuta kalitate/prezio erlazio ezin hobea baitu. Alde batetik, kabledun aurikular arruntak merkeak izan arren, ez dute asko irauteko aukerarik hauen erabilera egunerokoa bada, guk bizi dugunaren eta gure ingurukoaren esperientzia propioen arabera. Beste aldetik, kable gabeko aurikularrak erosoak izan daitezkeen arren, lehen eskuko pare merke bat lortzea ez da batere erraza, hauen bateria oso azkar agortzen da eta probabilitatea handia dago baten bat galtzeko.



Gure produktuak, arazo guzti hauek konpontzeaz gain, gazteei zuzenduta dagoenez, prezio aproposa du, eta ondorioz, eskuratzeko erraza da.

ekoizten ditugun kaxak plastikozkoak dira. Kaxaren forma biribila izango da, modu honetan espazioa gehiago aprobetxatu daitekeelako. Behean edukiko duen zuloan mugikorrarekin konektatzeko lara egongo da; goian edukiko dituen bi zuloetan, berriz, aurikularrak.

Hemen duzue gure produktuaren balorezko proposamena. Orain, proiektuaren beste faktoreez hitz egingo dugu.

* Lara: zurez, metalez edo beste material batez eginiko pieza zilindrikoa, beste pieza batzuen zuloetan sarturik beroriek elkartzeko erabiltzen dena.